

Arüe-Ithorrotze-Olhaibi

Aurkibidea

Udalerria: Arüe-Ithorrotze-Olhaibi

Sarrera



Arue, Ithorrotze eta Olhabi herrien artean osatzen duten Zuberoako udalerrria, Pettarra eskualdean. Zuberoakoa izan arren, Donapaleuko kantonamenduan sartuta dago, eta hiriburu horrekin harreman handiagoa du Maulerekin baino. Euskalki aldetik, tarteko hizkeratzat har daiteke, baina Olhaibikoa zuberera da gehiago eta Aruekoa behenafarrera.

Argazkia: Wikimedia, [Havang](#)

- **Biztanleak:** 247
- **Euskaldunak:** %51,22

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **35**
- Transkribatutakoak: **15**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **35**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika

Hizlariak



Maddi Berterreix (1932)

Arüen jaio eta udalerrri bereko Olhaibi herrian bizi. Ama Labetze-Bizkaikoa zuen. Bi alaba izan ditu, bata Salbaterra ondoan bizi da eta bestea Auch-en.



Philippe Dulau

Arüen jaio eta Arüen bizi. Laboraria.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Lehen orain baino arto gehiago ereiten zen

- **Hizlaria(k)**: Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: AIO-001/002
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:00:52. **Bukatu**: 00:01:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena**: Lehen orain baino arto gehiago ereiten zuten. Prezioak merkatu zirenez geroztik, gutxiago.

Transkripzioa

- Bai. Ba oono oai gütixo. Lehenago züzün... Izan düzü biziki gehio.
- Jo, gutxiago?
- Bai. Oai, gütixao.
- Jo, lehenago orduan?
- Ba, ba, ba, bai. E... zunbeit urtez, biziki. Bai, zunbeit urtez, bena oai, merkatü beitzen eta ordian e...
- Dena merkatzen da, ez?

- Bai. Merkatü beitzen ordin ützi züzien amiñi bat, bai.
 - Eta zeinek ...? Zeinek ...?
 - Ah, ez. Eztüzü hazitakoik.
 - Ah, ez dira...?
 - Ez, ezpeiginen isolatüik, ordin eztüzü, eztüzü in ahal izan sekülak, eta hazitakoik. Eztüzü in. Aizun bai, bena ez gük ez.

1.2. Erositako nobletasuna Abadiatarrena

- **Hizlaria(k)**: Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: AIO-001/005
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:03:38. **Bukatu**: 00:05:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Nobleak omen ziren Ithurrotzen. Hainbat etxe zuen Abadiatarrak herri horretan eta Olhaibin. 5-6 etxe dira bakarrik Olhaibin. Jatorri apalekoak omen ziren Abadiatarrak baina nobletasuna erosi egin zuten Ameriketara dirua eginda gero.

Transkripzioa

- Noble beitzien Ithurrotzen.
 - Nobleak [...] jauregi hori?
 - Bai... Nobliak zützün, ordian heen, etxetiarrak zützün oro Ithurrotzen. Olha(i)bin... eta Olha(i)bin ee bai, bi etxe.
 - Ah bai?
 - Ba, hiru ee.
 - Hiru bakarrik e?
 - Bai. Hiru etxe Olha(i)bin. Denak ee, eta...
 - Horienak?
 - Bai, bai, Abadiatarrenak. "Oui, oui". Ordian hartako Olha(i)bin egiazko familia olha(i)bitarrik eztüzü bo... bost, sei etxe. Bai, eztüzü gehio.
 - Zenbat etxe dira?
 - E?
 - Zenbat... zenbat etxe, Olhaibin?
 - Etxen? Oai etxe egoiten?
 - Zenbat, bai. Zenbat etxe?
 - Etxen egoiten? Ala etxe egoiten?
 - Etxe, bai.
 - Etxe, ba, bai, sei etxe, bospasei etxe. Bai, bai, bai. Biga... lau... bai, sei... zazpi izan [...], bai.
 - Eta Ithurrotzeko Jauna izanen zen diruduna, ez? Ithurrotzeko Jauna...
 - E... bai, bai.
 - Diruduna izanen zela...
 - Ba, bai...! Oro bezala!
 - Badu etxe...
 - "Enfin", Ameiketaik üken beitzien.
 - Ah...
 - "Voilà". Bai, bai, hartako... bai.
 - Eta han dirutu zen?
 - "Voilà". Bai, eta geo [...] hastez, ez zützün bate noblik. Bena nobletazüna eosten beita. Ordin horxe beian ai zitzün, eosi zizien. Bai, ai zizün "à

Camou".

- Bai... Ah bai, Gamuen?

- "Oui".

- Bertze jauregi handi hori?

- Bai. "Oui".

- Eta gero...

- Heen... heen züzün, heen, behin heen. E...betidanik heen, hunat jin, eta geo heen egon eta hua noblezia eosi. Hango...

- Hangoa?

- Hangua eosi, han ezpeitzen "héritier"ik.

- Ah...!

1.3. Nagusiak etxe gehienak saldu maizterrei

- **Hizlaria(k)**: Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: AIO-001/006
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:05:32. **Bukatu**: 00:07:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Bestelako kontuak » Historia orokorra
- **Laburpena**: Nagusiari errenta handia ordaindu behar izaten zioten. 1970 aldera saldu zituen nagusiak etxe gehienak. Orain Ameriketara omen dira, baina morroiek zaintzen omen dute jauregia.

Transkripzioa

- Bai.

- Ez zen "héritier"ik?

- Ez, han ez. Ez, han ez.

- Eta erosi zuen?

- Bai, "voilà".

- Eta diru anitz, ez? Eliza berea zen?

- Bai.

- Eliza berea zen...

- Bai. Bai, bai.

- Eta hemen, guziak berari dirua ematen, ez?

- E... bai, bai e... bortxaz! Edo errekoltain erdia, edo... "voilà". Kabalen erdia eta... Bai, bai.

- Eta hori noiz amaitu zen?

- "Euh... oh... pff... euh... mil-neuf-cent-soixante-dix, soixante-douze", edo hola... "Oui", saldū zunbeit [...] eta bestiak beak junaazten eta... "voilà".

- Beraz Bigarren Mundu Gerla...

- Bai, e... geoxaño bai. Geoxaño bai, "oui".

- Eta orain, hor, zer dago?

- Hor eta... oai mutil-neskatuk tützü.

- Ah, erosi die?

- Ez, ez, ez... eta nausi etxekandeiak Ameiketara tützü. Bai...

- Ah, Ameriketara dituzu bere jabeak?

- Bai.

- Eta hutsik da?

- E... hutsik eztüzü ez! Batützü... e... zeak... "les domestiques, euh..." mutil, mutil-neskatuk.

- A, bai, maizterrak.
 - Bai, mutila baduzü. Kabalik beitzüte hor. Kabale tropa bat. Bai. Kabalik badakizü zer dien?
 - Bai, bai, bai... Kabaleak.
 - Bon.
 - Kabale... nola... bai zaldiak.
 - Bai, zaldiak edo behiak!
 - "Oui", behiak titzie hoiiek. Bai. Heen behiik eztüzü biziki zaldiik heen.
 - Ez?
 - Ez, ez, ez.
 - Gehiago behiak eta...?
 - Bai, behi gehio, biziki eztüzü biziki... Hoiiek eta zunbeit hartzen dizie bena oai... paseatzeko. Bena [...]

1.4. Laborarien bizimodua lehen gogorragoa

- **Hizlaria(k):** Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Erref:** AIO-001/016
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:19:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak
- **Laburpena:** Laborantzatik bizi dira. Lehen bizimodu gogorra zen baina orain ez hainbeste, makinei esker. Artoa, ogia (garia) eta ñagua (arbia) ereiten zuten batik bat.

Transkripzioa

- Eta zuek, beti laborantzatik bizi zarete... izan zarete?
 - Bai heen bai. Heen bai. Etxen´e bai. Güe etxen, ene etxen´e bai.
 - Eta nolako bizimodua da? Gogorra? Lan asko?
 - E... oai ez hainbeste ez. Lehenao bai.
 - Lehenago bai?
 - Lehenao. Denak esküz behar beitzien egin.
 - Hori da.
 - Bena oai ez. Oaiko maxinekin aisexao düzü e. Ba, bai. "Non, non. Maintenant, ça change oh ! Non, non." "Dià, dià." Bena gerla denboan eta... "mon Dieu !"
 - Bai.
 - Bai.
 - Eta zer izaten zenuten? Artoa...?
 - Ogia...
 - Artoa, ogia?
 - Bai, artua eta ogia eta... ñagua. Ziek ez... nula erraiten duten ... "le navet" ?
 - Bai, bai, bai, bai e... guk... Nola esan duzu?
 - "Ñagua."
 - "Ñagoa"? Guk "arbia".
 - "Arbia" bai, "voilà", "arbia". Bai, bai... "arbia". Bai.
 - Guk "arbia".
 - Bai, bai.
 - Lehenengo... ba... artoa eta horrela. Gero...?
 - Ogia!

- Hori da.
- Ogitik landa...
- Arbia?
- Arbia.
- Arbia negurako?
- Bai. Negüko e!
- Bai.
- Bai, negüko, arbia. "Voilà." Bena behar zin esküz elkhi hua.

1.5. Inguruko eiherak

- **Hizlaria(k)**: Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: AIO-001/018
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:19:50. **Bukatu**: 00:20:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Eihera txiki bat zen Etxarrin, baina ura zelarik ibiltzen zen bakarrik. Domintxainen, berriz, bazen handia.

Transkripzioa

- Eta eihera non zenuen?
- Eihera?
- Bai, non?
- E... bo Etxarrin bazüzün baño, ttipi bat.
- Non? Etxarrin?
- Etxa... Etxarrin bai, bena ura zelaik.
- Ah...
- Ezpeitzen üdan behar zian beti urik, ordian Domintxiñen...
- Domintxainen ere bazen?
- Bazen Domintxiñen e, ta Behaskanen... "à la Bidouze". Han bazen eihera handia. Bai, bai.

1.6. Ogia egiten

- **Hizlaria(k)**: Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: AIO-001/020
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:22:05. **Bukatu**: 00:23:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Ogia nola egiten zen kontatzen du. Labea zenbat eta beroago eta denbora gutxiago behar zuen ogiak erretzeko.

Transkripzioa

- Ba, bai.
- Nola... nola zen?
- Ura epeltzen zin, eta levüa behatzen beitzen, beti, levüa e... eiten lehenik levüa...e... mezpeati. Eta bihaamunin, geo hua ur... ur epelin ezartzen, eta

irina ezartzen hartan eta untsa traballatzen.

- Bai, bai, bai, bai, bai.

- "Voilà." Esküz e!

- Bai. Ulertzen dut bai.

- Bai, esküz. Bai, bai.

- Eta gero labera sartu?

- E?

- Gero labera sartu?

- Bai. Amiñi bat ezar bai, bai... ezar... arranjatüik eta..."voilà, oui".

- Gero labeat?

- Gero labeat.

- Zenbat denbora egoten zen labean?

- Ba dependitzen zin e... nula beotzen zen labia. Bai. Labia untsa bero balin bazen, fite so erratzen züzün.

- Hori da.

- Bai, bai, bai.

- Eta egurra, zura ezartzen zen barnean, azpi... pean ez?

- Bai. Bai.

- [...]?

- Eta... e... labe zola... e... brikan beitzen. Brika lodin.

- Bai.

- Ordian e... egürra, sü eitiaeikin, süiaekiaekin... zik eztakit nula erraiten düzün "süia"...

- Ondo, ondo.

- Süia eitiaeikin barnen, untsa, berotzen zien brika hek...

- Bai.

- Geo [...] eta [...], han ogia ezartzen.

2. Euskara

2.1. Zuberotarra eta behenafarrera nahasian

- **Hizlaria(k)**: Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: AIO-001/003
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:01:40. **Bukatu**: 00:02:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Aruen Domintxainen baino zuberotarrago mintzatzen dira. Etxarrin eta Domintxainen bi euskalkien arteko nahastea egiten omen dute.

Transkripzioa

- Ez.

- Eta hemen, zer? Batzuk mintzatzen zarete xiberotarrez, bertze batzuk manexez?

- Bai.

- Nola da hori hemen? Nola...?

- E be limitan beigia.

- Bai?

- Haik iten dizü. Aiben deja, eta... biziki xüberotarra oo düzü, Domintxinen beno.

- Non? Arüen?

- Bai.
 - A bai?
 - Bai. Aldiz Domintxinen hor beian, hor... manexao.
 - Manexago?
 - Bai, manexao.
 - Eta Etxarrin ere, zuberotarrez?
 - Bai, bai, Etxarrin orotaik, bietaik.
 - Bietarik?
 - Bai. Nahas, nahasketa... nahastekatzen beitia. Ordin... "voilà".
 - Bai.
 - "Oui, oui".
 - Eta hor... zer erran behar nizun? Arüetarrak ziren zure aita eta ama, arüetarrak ziren?
 - Bai.
 - Biak arüetarrak?
 - Ez, ama ez.

2.2. Alabek euskara konprenitu bai baina elekatu ez

- **Hizlaria(k)**: Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: AIO-001/009
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:09:55. **Bukatu**: 00:12:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Zuberotarrez mintzo da Maddi. Alabek euskara baizik ez omen zekiten eskolan hasi zirenean, baina geroztik utzi eta orain ulertzeko gai dira baina ez elekatzeko. Herrian diren gazte eta hurrek ba omen dakite euskaraz.

Transkripzioa

- Ulertzen dugu e.
 - Bon!
 - Xiberotarrez nola erran duzu?
 - Gü xüberotarrak beigia. Ni xiberotarrez mintzatzen nüzü.
 - Bai, bai, bai. Ongi, ongi. Eta zure alabak badaki euskaraz?
 - Badaki, egin... egin dizie üskaa. "Enfin" gehienak, gehiena [...] oküpatzen. Haik eskolaa jun artino beti üskaaz mintzo... mintzo züzün. Bena geo eskolan abiatü ondun, üskaa ützi. Eta oai konprenitzen bai, konprenitzen dizü e, bena eleka artzeko, eztüzü... ausart. Bai, bai. Eleka artzeko... Tä bigarrena aldiz, haik egin dizü bo... baxola artino. Üskaa. Bena hua ere eleka artzeko, eztüzü... trebe.
 - Ez da, ez dago trebe?
 - Ez. Bai, eztüzü trebe. Bena konprenitzen e gaiñea.
 - Konprenitzen?
 - Ba, bai, konprenitzen haik. "Oui, oui, oui."
 - Eta bestela, hemen herrian eta mintzatzen da usu euskara?
 - O, bai... üskaa... ba, bai. Güen artin, edo frantsesez... beita orotaik ene... beita...! Eztü denak konprenitzen üskaa! Ordin hekin frantsesez eta... frantses... amiñi bat anglesin eta hola!
 - Eta euskaldunak, zuen artean, aski... anitz zarete?
 - Ba, bai. Ba, bai. Ba, bai.

- Anitz zarete bai?
 - Ba, bai. Bai.
 - Eta gazteetarik eta bada edo...?
 - Ze...?
 - Gazteetarik eta...
 - Gaztiak? Bai... ez biziki ez!
 - Ez biziki?
 - Ez, ez... bizpalau... bo... ba, bai... baiño beizik gazteik... biga. Neskatu bat eta, neskatuxa bat eta mutiko bat. Gaztietaik.
 - Bai.
 - Eta geo, gazte, gaztiagoetaik, ordian haurretaik, bada biga, lau... ba, bai.
 - A, beno, badoa hazten behintzat.
 - Ba, bai.
 - Ikastolara joaten dira?
 - E...?
 - Ikastolara joaten dira?
 - E... ez.
 - Ez?
 - Ez. Ez, ez, ez, ez. E... nihue.
 - Eskola frantsesera?
 - Bai. Eskola frantsesean bai.
 - Eta euskaraz...?
 - Bai. Üskaa halee badükezie ba segürra. Ba, [...] badutela xipiek e.
 - Bai, badira.
 - Bai. Xipi dieno, ba... badizie eskuara e.

2.3. Antzina bearnesa ikastera Bearnora

- **Hizlaria(k)**: Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: AIO-001/011
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:13:00. **Bukatu**: 00:14:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- **Laburpena**: Zuberoako mugan biarnesa ia galduta omen dago, frantsesa da nagusi. Lehenago mutilak morroi bidaltzen omen ziren Bearnora biarnesa ikastera. Maddik ere badaki, sei urte egin baitzuten han neskame.

Transkripzioa

- [...] euskaldunak badira edo...?
 - Bai, han xübeotar arrunt. Heen aldiz ez. Heen mane... manexa oai. Bai.
 - Eta gero han gaskoia, ez?
 - E... ez.
 - Bearnesa, ez?
 - Bai, biarnesa, bena eztizie biziki pratikatzen biarnesa.
 - Ez e?
 - Ez.
 - Euskara gehiago?
 - Zeen eta... hasi zützün bai bena... ez eta ere üskaa ere ez! Frantsesa... frantsesa.
 - Eta zer iduritzen zaizu?

- E?
 - Zer iduritzen zaizu?
 - Bof...! E... geo, adin batetan, onduan, o, ikasten düzü beti ba amiñi bat. E... üskaa izanik ere, edo... edo biarnesa izanik ere... Erran dakotet nik behar zela ikasi... Lehenagoko denboan, e... üskaldünek, heen, igortzen zitzin Biarnoat. E... mutiko gaztik biarnes... biarnesain ikastea.
 - Ah bai?
 - Ah ba, ba. Bai. Aita... aita zena, eniak, biarnesa bazekizün kurrent.
 - Bai?
 - Ba, bai e... ni ere izan beiniz Biarnon neskato.
 - Ah bai?
 - Ordian egon nüzü sei urte Biarnon. E be bena nik ere konprenitzen dit biarnesa e. Ba, ba,bai. Geo elekan artzeko segidan... ez. Hitz zunbeit bai bena...

2.4. Eskolan euskaraz egitea debekatuta

- **Hizlaria(k)**: Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: AIO-001/013
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:14:43. **Bukatu**: 00:15:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Eskolan hasi zirenean euskara baizik ez zekiten, baina debekatuta zuten euskaraz egitea.

Transkripzioa

- ... xipi-xipiak ginelaik? Ezpeiginüzten üzten!
 - Ah?
 - Eta eleka artzea üskaaz, ezpeigenien eta gük frantsesez egin züzün... eskolala artino. Ordin hartako! Bai.
 - Eta gero, egurra?
 - Bai, bai. Bai, bai. Ordin ez gintützün üsü ai üskaaz e... eskolan. "Dià, dià, dià, dià." Ez dizie nahi ai gintien...
 - Bai.
 - Bestaldiz ai, aiko gintützün bai, bena... ez, ez.

2.5. Hamar anai-arrebetarik zaharrena

- **Hizlaria(k)**: Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: AIO-001/015
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:17:15. **Bukatu**: 00:18:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 10 anai-arreba ziren, bera gehiena, nagusia. Denak inguruan bizi dira. Denek dakite euskaraz.

Transkripzioa

- Eta ttipi, zuek zenbat anai-arreba zineten?
- Hamar.
- Hamar? Eta denak hemen?
- ... "enfin" han, ene etxen.
- Ah, zure etxean... Hau, senarraren etxea...?
- Senarraren etxea, bai.
- Zu hona...?
- Huna jin, huna jina ba.
- Hona ezkondu eta hona etorri?
- Bai. Eta ni gehiena hamarretaik.
- Ah bai?
- Bai.
- Eta besteak non bizi dira?
- O... e... amiñi bat... Etxarrin baño, eta bestea.... biga Aiben eta bestea Domintxinen eta beste bat Sarrikotan eta... beste bat Nabarzin, eta beste bat Juanik, maleoski, diela bizpahiurte. Bai. Hua ez zen ezkontia. Bai.
- Denak inguruan?
- Bai. Bai, bai... üngü... üngürían bai. Habooxiak, bai, bai.
- Eta guziak euskaraz badakite, ez?
- Ba, bai... Ba, bai. Habooxiek. Ah, bai, denek ee. Beste bat baduzü Ezpeizen, undarra... bai, bai, Ezpeizen, aneia gaztena. Bai.

2.6. Katexima euskaraz ikasi zuten

- **Hizlaria(k):** Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Erref:** AIO-001/023
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:26:24. **Bukatu:** 00:27:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena:** Kateximan ezagutu zuen Xixili. Euskaraz ikasi zuten dotrina. Aruen eta Etxarrin aldizka egoten da igandetan meza.

Transkripzioa

- Eta Xexili nondik ezagutzen duzu?
- A, Xexila, kateximan elgarrekin gintützün, Aiben.
- Katixima haur txikientzako?
- Bai.
- Eta nola...?
- Katexima, Olhabi... ba Etxarri ta...
- Katixima euskaraz?
- A bai, bai, eskuaraz e. Eskuaraz.
- Ondo, ondo.
- "Oui", eskuaraz. Ahal bada ba...
- Xexili, buru argia du Xexilik?
- "Oui".
- Bai, bai.
- "Oui, oui, oui".
- Argia du.
- Bai, ba, bai. Eta ordin, Aibe eta Etxarrik apez bat zizien. Eta heen aldiz,

Ithorrotz eta Olhabin, Domintxiñeko apeza. "Voilà, oui". Bai.

- Eta katiximan zer ikasten zinuena?
- Katexima ikasten genizün... Aiben. Katexima eiten zin Aiben apezak. Ez züzün batee komodia. Eta apeza, orduko apeza, barkoxtarra züzün.
- Urruna e?
- Bai! Ürrünekua. Barkoxeko.
- Eta gero, komunioa?
- Komünionia, konfirmazionia.
- A bai?
- Lehenik oono konfirmazionia, geo komünionia.
- Eta Arüen?
- Bai, eta Aiben eta Etxarrin, aldizka.
- Aldizka?
- Aldizkan. Igande bat, goiz meza... Etxarrin, ta ondoko igandin Aiben. Ta meza handia hala-hala.
- Bai, bai, bai.
- "Oui".

3. Familia eta harremanak

3.1. Maddiren bi alabak

- **Hizlaria(k)**: Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: AIO-001/008
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:08:28. **Bukatu**: 00:09:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Salbaterra ondoko herri baten bizi den alabak laguntzen dio etxeko lanetan. Beste alaba Gers departamentuan bizi da, Auch herrian. Hiru iloba ditu.

Transkripzioa

- Eta nork laguntzen dizu etxean, hemen?

- E.. ni? Nur lagüntzen? "Euh, non, non... euh...", alabak.

- Ah, alabak.

- Alabak, bena eztüzü heen egoiten. Biarnon egoiten düzü, "à Andrein", Salbatarre ondun. Bai, Salbatarre ondun. Eta ai dizü... hain... hain auzu oai.

- Bai, laguntzen dizu...

- Bi alaba beinütin.

- Bai?

- Ordin...[...] beiginitien.

- Bi alaba?

- Bai, bi alaba ordin. Bestia aldiz eta... zeien düzü... Gersen. "à...à Gers... au Gers... au Gers. Au Gers, oui. Ah... elle travaille à... à Auch. Oui. Oui." Lanin ai düzü Auchen. "Oui."

- Eta alabak badu...?

- Segida!

- Segida?

- Bi seme... eta alaba bat! "Oui, oui, oui!"

- Bon, oso ondo e?

- "Oui, oui, oui!" Bai, bai... bi seme. Bai, bai, bai... bi seme. Badizü bat hango ta bestia heengo. "Oui."

- Zenbat urte dituzte? Zenbat...?
- E... gaztenak hamalau, bestik hamost, eta gehienak hamasei.
- Ah, oso ondo, oso ondo.
- Bai, hamasei eginik ee. Eta oai bigarrenak hamost... hamost egina, mutikua hua. Gehiena neskatu[...] düzü. "Neska", "enfin", ziik "neska" erraiten düzie.
- Bai, bai, bai.
- Bai, ni xiberotar mintzatzen beiniz!
- Oso ondo.

4. Aisia

4.1. Etxarriko festetan ezagutu zuen senarra

- **Hizlaria(k)**: Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: AIO-001/022
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:24:22. **Bukatu**: 00:26:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Dantzan gaztetatik egin du. Dantza librerik ez, bestelakoak. Dantza-klaseak zerrendatzen ditu. Ithurrotzen eta Olhaibin ez zen plaza formalik, gudronatu (asfaltatu) gabe baitzegoen lurra. Senarra Etxarriko festetan ezagutu zuen, dantzan. Etxarrira anitzetan joaten ziren festara.

Transkripzioa

- Eta zu oroitzen zira ttipitan zertan jostatzen zinen?
- Dantzan!
- Dantzan? A bai?
- A bai! A dantzan bai e!
- Eta non?
- E? ba, plazetan! Bena amiñi bat handitü ondun e!
- Bai, bai, bai.
- Bai.
- Eta zer dantzatzen zinuen? [...], hola?
- E... ez, hoi eztit ikasi. Nik baltsa, "oui, la valse, et la java, et la marche, et... le swing et..."
- A! Oso ondo!
- "Oui" !
- Eta zer egoten zen? Akordeoina?
- Akordeona, eta bai besteik e bai. Bena akordeona bai süstut.
- Hemen, Olhaibin bai edo Etxarri eta Arüen eta hor?
- Arüen eta Etxarrin bena Olhabin, ez beitzen plazaik, ez beitzen gudronatüik e oai bezala ordin... ahal [...], ez eta lthorrotzen e! lthorrotzen e, pesta eiten züzün bai, bena... ez züzün aise dantza artzia! Ordian... Bai.
- Hori mutil, mutilak ezagutzeko ongi egonen zen?
- Bai. Bai, bai.
- Eta non ezagutu zenuen senarra?
- A, pestetan, Etxarrin.
- A!
- Dantzan, dantzan artzian! Bai, "oui". Geo familia bazien Etxarrin e! Zeen

eta senar zenaen ama etxarritarra züzün. Bai, etxar(ri)tarra züzün. Ta haat heldü zitzün uiñez e! [...] elgietan gaindi.

- Ah, oinez?

- Uiñez, "oui".

- Haat heldü züzün meza, pestalat eta "voilà". Ta gü Etxarri eta Aiben limitan beiginen ordian beti Etxarriko pestetan gintützün. Bai.

- Etxarri eta Arüe dira oso juntaturik?

- Bai.

- Oso hurbil?

- Bai, biziki, bai, bai, hürbil-hürbil. "Oui", bai, bai.

5. Herria, azpiegitura

5.1. Hiru herri eta udalerrri bat

- **Hizlaria(k)**: Berterreix, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: AIO-001/025
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:28:16. **Bukatu**: 00:29:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- **Laburpena**: Lehenago Olhaibi eta Ithorrotzek udalerrria osatzen zuten baina merak (Abadiak) hauteskundeak galdu zituen, eta herriko etxea berea zenez, bereganatu egin zuen. Orduan Arüerekin bat egin zuten.

Transkripzioa

- Eta... zera da? Etxarri bera bakarrik da?

- Bai.

- Herria?

- Bai.

- Eta hau, Ithorrotze, Olhaibi eta Arüe?

- Arüe. Bai, bai, füsionia ein beitzüten. Bai. Bestañez, baginizün herriko etxia hemen e.

- A bai e?

- Ba, ba, bai. Hemen e. Ba, ba, bai. Bena geo, eleksionik izan beitzien...

- Bai?

- Eta Abadia beitzen mera ordin, eta heen, Olhabin, ez zizien eletrikaik. Eta atsülütoki eletrika nahi [...] bestetan zelaik, eta ordin eleksione eta kanpun ezai hua. Eta haek meria elkhi, haena beitzen meria. Lürra hena beitzen eta bai, etxia ere bai. Haek süprimatü. "Oui", süprimatü. Eta ordin füsionia ein, eta ordian oai Aibeekin gintützü. Bai.

- Eta lehenago ziren Ithorrotze eta Olhaibi edo Ithorrotze alde batetaik eta...?

- Ez, ez. Lehenao e, lehenaoko... aspaldiko denboan, füsionia izanik Ithorrotzen eta Olhabin artian.

- A bai?

- Bai, bai.

- [...] Hiruak?

- Bai, ordian hartako, herri, herriko etxia... limitan züzün.

- A, bien limitan?

- Bai, Ithorrotzen eta Olhabin limitan. "Oui, oui. Oui, oui".

- Oso ongi, ba milesker. Egin dugu aski. Milesker guziengatik.

- Egiazko... egiazki behar nizün jarri e! Bestañez...

- Bai, bai, bai...
- "Oui".
- Hobeki!

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Donapaleuko merkatua (AIO-002/002)

Laborantxatik bizi izan da beti. Ostiral oroz merkatura joaten da Donapaleura erosketa batzuk egitera. Lehenago abereak ere izaten ziren baina gaur egun ez da fitsik ere. Orain etxera etortzen dira erostera.

2. Artoa (AIO-002/003)

Ardiak Hazparne edo Donibanen dira. Amikuzen behiak eta artoa dira nagusi, kontsumitzekoa gehienik. Apirilean ereiten da eta urrian bildu. Lehen artoa xuritzen zuten baina orain ez. Lehen ez zen hainbeste arto egiten, baina orain makinekin lana errazago egiten denez, ekoizpena handitu da. Kastratu ere makinekin egiten da baina akabua eskuz. Horretarako, emeari lorea kentzen zaio arrak ernal dezan.

3. Deforestazioa (AIO-002/004)

Lehenago oihan gehiago zegoen orain baino, eta gaur egunean pentze bihurtu dituzte.

4. Abere hazkuntza (AIO-002/005)

15 behitaraino izan ditu, txahalak Italiara saltzeko, nahiz eta badiren inguruan 300 behira arte dituztenak. Lehen dirua ondo ateratzen zen, baina orain arazoak dituzte ber prezioan saltzen direlako. Eskerrak sos laguntzei! Lantegirik ez dagoenez, gazte asko kanpora joaten da lanera.

5. Euskararen egoera herrian (AIO-002/006)

Gazteek ez dute euskara mintzo, nahiz eta ulertzen duten. Etxean ez diete haurrei erakusten. Ez zaio tristea iruditzen, eboluzioaren ondorio baizik. Bi arreba ditu eta horiek ere frantsesez ari dira.

6. Etxeko segida (AIO-002/007)

Ez du laborantxan segidarik ez baita ezkondua, eta ilobak beste lanbide batzuetan ari dira lanean.

7. Erdi manex erdi xiberotar (AIO-002/008)

Manexaren eta zubereraren arteko nahastea dute mintzoari erreparatuz gero, mugan baitira. Donapaleuko kantonamenduan dira, Amikuzen. Pagola da gehien nahasten duena.

8. Lehen eta bigarren mundu gerrak (AIO-002/010)

Bere aita preso egon zen bost urtez alemanian. Bakar batzuk hil ziren bigarren mundo gerran baina gehiago lehenean.

9. Txiki zenean dena etxean ekoizten zen (AIO-002/012)

Txiki zelarrik gauza gutxi erosten zen, dena etxean ekoizten baitzen.

10. Seme gehiena etxean, besteak kanpora (AIO-002/013)

Ama Lohitzunekoa zen, eta aita etxekoa. Seme gehienari ematen zitzaion etxea, eta gainerakoak Ameriketara joaten ziren usu, Argentinara buruz artzain.

11. Eskola (AIO-002/015)

Herrian ibili zen eskolan. Orain Donapaleura joaten dira. Etxarrin 11 urtera arte dago eskola. Frantsesez zen eskola bere denboran. Euskara etxean ikasten zen. Gaur egun badira ikastolak euskara ikasteko.

12. Etxea lehen bezala. (AIO-002/017)

Etxea ez da asko aldatu bere haur denboratik hona. Beheko sua da etxeko bero iturri bakarra, eta amak bertan prestatzen zuen jana.

13. Züzülia (AIO-002/019)

"züzülia" neguan suaren ondoan norbera berotzeko erabiltzen zen aulki bat zen.

14. Neskato eta mutil lanera (AIO-002/021)

Arrebak 16-17 urterako neskato joan ziren. Jendea behar zen etxean lanean aritzeko. Orain nahikoa da gizon batekin lur ugari lantzeko.

15. Inguruko herriekiko harremanak (AIO-002/022)

Herri batzuekin hobeto konpontzen dira beste batzuekin okerrago. Bera baino lehenago gazteen artean liskar gehiago izaten ziren, baina bere denborara orduko "zibilizatuagoak" ziren.

16. Lehengo kriolak eta festak (AIO-002/023)

Pilotan aritzen ziren, sokatiran eta harri jasotzen ere bai. Ez zaio gustatzen dantzatzea. Tronpeta eta akrodeoa izaten zen herriko musika, baita txistua ere. Orain herri txikietan ez da halako festarik.

17. Hirugarren adinekoen elkarretaratzea (AIO-002/024)

"Foyer"-ean urtean behin hirugarren adinekoen bazkaria egiten dute herriko etxeak pagaturik. Ez dira elkartzen lehen bezala. Mezara ere ez dira lehen bezainbeste joaten

18. Elizaren aldaketa (AIO-002/025)

Haur zirelarrik mezara eta bezperetara joaten ziren arratsaldean. Latinez zen meza, baina orain euskaraz. Gaur egunean apaiz bakoitzak 10 herri ditu. Hiru urtez better aritu zen. Kantatzen aritzen zirenak ere baziren.

19. Arrosarioa eta bestelako otoitzak (AIO-002/027)

Amak otoitzak erakusten zizkion eta arrosarioa ere erreztatzen zuten ttipi zelarrik.

20. Okina Arüen (AIO-002/028)

Ez zuten etxean ogirik egiten, herrian okina baitzegoen eta epizeria ere bazen. Alta, orain Donapaleura joaten dira. Lehen autokarra zuten bertara joateko. Orain pizzería dago herrian.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com